

Kultur ekimen irisgarri eta inklusiboak diseinatzeko eta antolatzeko protokoloa



I. AURKEZPENA

II. TESTUINGURU NORMATIBO OROKORRA ETA OINARRIAK

III. KULTURA-EKITALDIEN DISEINU ETA ANTOLAKUNTZAN KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK, IRISGARRI ETA INKLUSIBOAK DIRELA BERMATZEKO

1. Ekitaldia gauzatuko den espazioa aukeratzea
2. Ekitaldia ezagutaraztea
3. Ekitaldiaren segimendua egitea
4. Seinalaztapena
5. Aparkalekuak
6. Komunikazioaren ordezkio sistemak edota sistema osagarriak
7. Informazio inprimatua
8. Ikus-entzunezko informazioa
9. Informazio digitala
10. Mota guztietako erakusmahaiak eta informazio puntuak
11. Informazio-kartelak edo panelak
12. Boluntarioak
13. Tokia erreserbatzea
14. Garraioa
15. Musika-ekitaldiak gauzatzen dituzten lokalek bete beharreko baldintza orokorrak
16. Museoak eta galeriak
17. Zinemak eta antzokiak
18. Auditoriumak eta ekitaldi-aretoak
19. Hainbat erakusketa
20. Hondartzak
21. Azoka Handiak
22. Komun irisgarriak
23. Aire zabaleko ikuskizunak
24. Beste elementu batzuk
25. Ekitaldiak antolatzerakoan kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuk

IV. BIBLIOGRAFIA

V. ERANSKINAK

I.

AURKEZPENA

Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburua proiektuak bizikidetzarako tresna gisa sustatzen du kultura, eta herritar guztiak biltzen ditu erronka kolektibo honen baitan, aniztasuna aitortuta berdintasunean aurrera egin ahal izateko. Aniztasunak, pertsonen, gizartearen edo kulturei datzekien faktore moduan, ekarpenak egiten dizkie ezagutzari, elkarreraginari eta bizikidetzari, gizarteak aberasten ditu, pertsonen arteko berdintasuna sortzen du, eta gizarte kohesioa dakar.

Kulturak berdintasun faktore moduan duen garrantzia jasota dago Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean bertan, honela baitio: *“Pertsona orok du eskubidea komunitateko kultur bizimoduan modu askean parte hartzeko”*. Eta jasota dago, halaber, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioan ere: *“Desgaitasuna duten pertsonen eskubidea dute gainerakoekin baldintza berberetan kultur bizimoduan parte hartzeko”*.

Azken batean, gizartearen eraldatzeko tresna dugu kultura, aniztasuna aitortu eta bere egiten duena, eta aukera berdintasuna zein pertsona guztien parte hartze aktiboa bermatuko dituen gizartearen eraikitzen laguntzen duena.

elkartu (Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea) irabazi asmorik gabeko erabilgarritasun publikoko entitate gisa aitortuta dago, eta gero eta inklusiboagoa izan behar den gizarte honetan urritasun fisikoa duten pertsonen integrazio eta partaidetza soziala lortzeko helburua du.

Donostia 2016 eta elkartuk lan ildo ezberdinetan elkarlanean dihardute, horietako ildo bat «Kultura-ekitaldi irisgarri eta inklusiboen diseinu eta antolakuntza bermatzeko protokoloa» izan delarik. Txosten horren helburua da Donostia/San Sebastian 2016 ekimenaren baitan antolatutako kultura-ekitaldietan eta jardueretan hiritarren parte hartzeko aukera-berdintasuna betearaztea.

II.

TESTUINGURU NORMATIBO OROKORRA ETA OINARRIAK

«Kultura-ekitaldi irisgarri eta inklusiboen diseinu eta antolakuntza bermatzeko protokoloa» osatzeak ondorengo marko normatibo orokorrean jasotako eginbeharrak betetzeko beharrari erantzuten dio:

Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioa, New Yorken, 2006ko abenduaren 13an (30. art.)

1

“Estatu partaideek gainerako herritarren baldintza berdinetan bizitza kulturean parte hartzeko eskubidea aitortzen diete desgaitasuna duten pertsonei, eta dagozkien neurri guztiak hartuko dituzte desgaitasuna duten pertsonei honakoak ziurtatzeko:

- a) Formatu irisgarriko kultura-materialerako sarbidea;
- b) Formatu irisgarriko telesaiotarako, filmetarako, antzokietarako eta bestelako kultura-jardueretarako sarbidea;
- c) Kultura-emankizunak edo -zerbitzuak eskaintzen diren tokietarako, hala nola, antzerkietarako, museoetarako, zinemetarako, liburutegietarako eta turismo-zerbitzuetarako sarbidea, eta, ahal den neurrian, kultura aldetik garrantzi nazionala duten monumentuetarako eta tokietarako sarbidea.

2

Estatu partaideek dagozkien neurriak hartuko dituzte, pertsona desgaituek beren sormena, potentzial artistikoa eta intelektuala garatu eta erabili ahal izateko, ez soilik pertsona horien onurari begira, baizik baita gizartea aberasteko helburuarekin ere.

3

Estatu partaideek dagozkien neurri guztiak hartuko dituzte, nazioarteko zuzenbidean ezarritakoaren arabera, honako hauek ziurtatzeko: jabetza intelektualeko eskubideak babesteko legeak ez direla oztopo handiegia edo baztertzaila, pertsona desgaituek kultura-materialak eskura izan ditzaten.

4

Desgaitasuna duten pertsonak eskubidea izango dute, gainerako pertsonen baldintza berberetan, berariazko kultura- eta hizkuntza-identitatea aitortzeko eta bultzatzeko; zeinu-hizkuntza eta gorren kultura barne.

5

Estatu partaideek dagozkien neurriak hartuko dituzte, pertsona desgaituek gainerakoen baldintza berberetan parte har dezaten jolas-, aisialdi- eta kirol-jardueretan, eta honako helburuak betetzeko asmoz:

- a) Kirol-jarduera orokorretan eta maila guztietan pertsona desgaituen partaidetza ahalik eta gehien bultzatu eta sustatzea;
- b) Pertsona desgaituek beren kolektiboari zuzendutako kirol- eta jolas-jarduera espezifikoak antolatu eta gauzatzeko aukera dutela ziurtatzea, bai eta jarduera horietan parte hartzeko aukera badutela ere. Horretarako, heziketa, prestakuntza eta baliabide egokiak gainerakoei bezalako baldintzetan eskaintzea sustatuko da;
- c) Pertsona desgaituek kirol-, jolas- eta turismo-instalazioetan sarbidea dutela ziurtatzea;
- d) Haur desgaituek, gainerako haurren moduan, jarduera ludikoetan eta jolas-, aisialdi- eta kirol-jardueretan parte hartzeko aukera daukatela ziurtatzea, baita jarduera horiek eskola-sistemaren barruan gauzatzen direnean ere;
- e) Pertsona desgaituek jolas-, turismo-, aisialdi- eta kirol-jardueren antolaketan parte hartzen dutenen zerbitzuetan sartzeko aukera daukatela ziurtatzea.

Azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duenak, honela definitzen du gizarteratzea: *«guztion ongizatea eta gizarte-kohesioari begira, gizarteak konpartitutako balioak sustatzen dituen printzipioa da. Hezkuntza-, lan- eta kultura-bizitzan, eta bizitza politiko, ekonomiko eta sozialean desgaitasuna duten pertsona guztiek aukera eta baliabideak izan ditzaten ahalbidetzen du, bai eta gainerakoen bizi-baldintza berberak izan ditzaten ere»*. Gainera, 51.8 artikuluan honakoa ezartzen du: *«Ahal den neurrian, kirol-, kultura- eta aisialdi-jarduerak irisgarritasun unibertsalaren printzipioaren arabera gauzatuko dira, hiritarren zerbitzura ipinitako instalazioak eta baliabide arruntak baliatuta. Laguntzen espezifikotasunak eta beharrak hala eskatzen duenean baino ezingo dira ezarri, modu lagungarri edo osagarrian, zerbitzu eta jarduera osagarriak»*.

Irisgarritasuna bultzatzeari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legearen helburua da *«hiri-ingurunearen, gune publikoen, eraikinen, garraiobideen eta informazio eta komunikabide sistemen irisgarritasuna bermatzea, era autonomoan erabili eta goza ditzaten pertsona guztiek eta, bereziki, mugikortasun mugatua dutenek, komunikatzeko zailtasuna dutenek edo aldi baterako edo betirako muga psikiko edo sentSORIALA dutenek»*.

Halaber, Protokoloa osatzeko kontuan hartu dira, besteak beste, irisgarritasun gaiei dagozkien garapenerako arau teknikoak, autonomia nahiz estatu mailakoak. Honako hauek dira:

- Apirilaren 20ko 505/2007 Errege Dekretua, irisgarritasunerako oinarrizko baldintzak onartzen dituena, pertsona ezinduek, diskriminatuak izan gabe, urbanizatutako gune publiko eta eraikinetara sartu eta horiek erabili ahal izateko.
- Martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretua, Eraikuntzaren Kode Teknikoa onartzen duena.
- Apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena.

Protokoloaren osaketan eragina duten printzipioei dagokienez, honakoak aipatu behar dira:

- **Irisgarritasun unibertsala:**

inguruneek, prozesuek, ondasunek, produktuak eta zerbitzuek, bai eta objektuek edo bitartekoek, tresnek eta gailuek ere, bete behar duten baldintza da, pertsona guztiek ulertu, erabili eta praktikatu ahal ditzaten, segurtasunez eta erosotasunez eta ahalik eta era autonomo eta naturalenean. «Diseinu unibertsala edo guztientzako diseinuaren» estrategia eskatzen du, nahiz eta arrazoizko doikuntzak egin ahal zaizkion.

- **Diseinu unibertsala edo guztientzako diseinua:**

inguruneak, prozesuak, ondasunak, produktuak, zerbitzuak, objektuak, bitartekoak, tresnak, programak eta gailuak pertsona guztiek erabili ahal izateko ahalik eta hedadurarik handienean hasiera-hasieratik eta posible den guztietan sortzen eta proiektatzen den jarduera da, egokitzapenik eta diseinu espezializaturik behar ez duena. Diseinu unibertsala edo pertsona guztientzako diseinuak ez ditu pertsona-talde jakinentzako laguntza-produktuak baztertuko, horiek beharra dutenean.

- **Aukera-berdintasuna:**

desgaitasunen batean oinarrituriko bereizkeriarik ez egotea, ez zuzenekoa, ez zeharkakoa, ezein arlotan –politikoa, ekonomikoa, soziala, kulturala, zibila, etab.–, eta desgaitasuna duen pertsonaren giza eskubideak eta funtsezko askatasunak baldintza berdinetan aintzat hartu eta erabiltzea oztopatu edo ezeztatze helburu duen bazterketa, bereizkeria edo murriztapen oro ere ez egotea. Era berean, ekintza positiborako neurriak hartzea ere aukera-berdintasuntzat jotzen da.

- **Normalizazioa:**

desgaitasuna duten pertsonen gainerakoen baldintza berdinetan bizi ahal izatea, eta beste edozein pertsonak eskuragarri dituen lekuetarako, eremuetarako, ondarrerako eta zerbitzuetarako sarbidea izatea.

- **Gizarteratzea:**

guztion ongizatea eta gizarte-kohesioari begira, gizarteak konpartitutako balioak sustatzea. Desgaitasuna duten pertsona guztiek hezkuntza-, lan- eta kultura-bizitzan eta bizitza politiko, ekonomiko eta sozialean gainerakoen aukerak eta baliabideak izan ditzaten ahalbidetzen du, hala nola bizi-baldintza berdinak.

III .KULTURA-EKITALDIEN DISEINU ETA ANTOLAKUNTZAN KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK, IRISGARRI ETA INKLUSIBOAK DIRELA BERMATZEKO

Funtsezkoa da beharrezko neurriak hartzea pertsona orok, desgaitasuna dutenek barne, kultura-ekitaldian parte hartzeko aukera berdinak dituela bermatzeko. Ondoko alderdi hauek bereziki hartuko dira kontuan:

1

EKITALDIA GAUZATUKO DEN ESPAZIOA AUKERATZEA

- > **Kokalekua:** Lekua guztiz irisgarria izan behar da. Ez da inolako trabarik egon behar (arkitektonikoa, komunikazioari dagokiona, etab.). Irisgarritasuneko baldintzak bete behar ditu.
- > **Hiri-ingurune irisgarria:** Hautatutako lekuaren ingurunea irisgarria dela egiaztatu behar da: lekuaren ingurunezko zirkulazioa, bai eta garraio-geltoki hurbilenetik leku horretara egin beharreko ibilbidea ere, irisgarriak direla egiaztatu behar da. Horretarako, honako ezaugarriak hartuko dira kontuan:
 - 1,80 m-ko zabalera duen pasabide librea.
 - 1,80 m-ko diametroko bira egiteko aukera.
 - Ibilbidean inolako trabarik ez egotea.
 - Zebra-bide egokiak (trabarik gabe, espaloiara iristeko arrapalarekin zero kotan, etab.).
 - Zoladura egokiak.
 - Ibilbidean koskarik ez egotea.

- > **Garraio publikoa.** Beharrezkoa da hautatutako lekuraino iristen den garraio publiko irisgarria egotea. Garraiobideak edo azpiegiturak ez badira irisgarriak, laguntzeko beharrezko langileak gehituko dira.
- > **Erreserbatutako aparkalekuak.** Erreserbatutako aparkaleku egokiak egon behar dira ekitalditik hurbil. Behar bezala seinaleztatuta. Ekitaldia «itxi» egiten bada, plaza horietarako sarbidea aurreikusi behar da, eta mugikortasun murriztuko pertsonen bertara sartzen utzi.
- > **Eremu irekietan.** Ibilbide irisgarriak prestatu eta behar bezala seinaleztatu behar dira. Komun eramangarriak instalatuz gero, horietatik ehuneko jakin bat mugikortasuna mugatuta duten pertsonentzat izan dadin bermatu behar da.
- > **Espazio itxietan.** Espazio horretan oztoporik ez dagoela ziurtatu , eta beharrezko ekipamendua daukala egiaztatu behar da, hala nola, komun egokitu bat.
- > **Segurtasun-neurriak**
 - Kontratatzaren diren aseguruiek ekitaldian parte hartu lezaketen pertsona desgaituak ere kontuan hartzen dituztela bermatu behar da.
 - Larrialdietako irteerak irisgarriak direla, hau da, mugikortasuna mugatuta duten pertsonentzako neurri egokiak betetzen dituztela bermatu behar da. Ebakuazio-ibilbideek soinuak eta ukimenezko informazioa izan behar dute, baita informazio optikoa ere. Ez badira irisgarriak, jarduteko protokoloak eduki behar dira behar direnerako, eta mugikortasuna mugatuta duten pertsonak lehentasunez ebakuatuko dira.
 - Alarma-sistemek alarma optikoa eta akustikoa izan behar dute.
 - Langileek dagokion formazioa jasoko dute, larrialdirik badago mugikortasuna mugatuta duten edo desgaitasuna duten pertsonak aurkitu eta, horiek laguntza behar izanez gero, ebakuatzeko.
- > **Ekitaldian izena ematea.** Komenigarria da edozein ekitaldian izena emateko momentuan pertsona horrek nolabaiteko desgaitasuna duen jakiteko galderak ezartzea. Horrela, ekitaldian parte hartuko duten desgaitasuna duten pertsonen inguruko informazioa edukiko dugu, eta ekitaldian zehar laguntza teknikoak edo pertsonalak behar dituzten jakingo dugu.

2**EKITALDIA ZABALTZEA**

- > Ekitaldiaren hedapena hainbat formatutan egin behar da, pertsona guztiek informazioa jaso dezaketela ziurtatzeko.
- > Prentsa, irrati eta telebista bidezko hedapenaz gain, Interneten eskuragarri jarriko da, W3C komunitateak ezarritako irisgarritasunerako jarraibideak betetzen dituen web-orrialde batean.
- > Informazioa liburuxka formatuan zein posta elektronikoz bidaliko zaie hainbat desgaitasun dituzten pertsonen kolektiboekin harremanetan dauden enpresei, elkarteei edo Udalei, ahalik eta gehien zabal dadin.
- > Informazioa SMS bidez bidaltzea bereziki egokia da entzumen-desgaitasuna edo desgaitasun hipoakusikoa duten pertsonentzat.
- > Liburuxkak diseinatzean hizkera sinplea erabiliko da, «irakurterraza»: piktogramak, marrazkiak eta argazkiak erabiliko dira, desgaitasun intelektuala duten pertsonen ulermena laguntzeko. Informazioa Braille sisteman egongo da, eta karaktere ikuserrazetan idatzita (karaktere handiak).
- > Informazioa bideoan eta zeinu hizkuntzaz grabatzea komeni da, entzumen-desgaitasuna duten pertsonak ulertzea errazteko.
- > Informazio telefonikoa eskura baldin badago, faxa, SMSak, posta elektronikoa edo bideo-deiak ere baliatu daitezke.

3**EKITALDIAREN JARRAIPENA**

- > Ekitaldiaren jarraipen nahiz ikuskapen egokiak egin behar dira, parte-hartzaile guztien aukera berdintasuna bermatzeko, eta ondorengo garapenean eta hobekuntzan laguntzeko.
- > Laguntza-zerbitzuak, zeinu-hizkuntzako interpreteen zerbitzuak eta gor-itsuen gida-interpreteen zerbitzuak ziurtatu behar dira.
- > Laguntzarako langileek behar bezalako prestakuntza jaso dutela ziurtatu behar da.

- > Ikus-entzunezko materiala erabiltzen bada, horrek audio-deskribapena, azpidatziak eta zeinu-hizkuntzako interpretea izan beharko ditu.
- > Inprimatutako materiala erabiltzen bada, pertsona guztiek irakurtzeko moduko hizkuntza erraz eta irakurgarria erabiliko da, eta piktogramak, argazkiak, etab., erabiliko dira. Honako formatuetan eskainiko da materiala: PDF irisgarria, Braille sistema eta karaktere handituak.
- > Parte-hartzaileen iritzia neurtzeko galdeketak egin daitezke, eta mugikortasunaren, komunikazioaren, ulermenaren eta erabilgarritasunaren inguruko oinarritzko gaiak ebaluatu daitezke.

4


SEINALEZTAPENA

Oinezko ibilbide irisgarri orotan, pertsonak modu egokian orientatzeko behar duten informazioa eskuragarri izan beharko dute ibilbide osoan zehar; horrela, interesgarri diren espazio eta ekipamenduak aurkitu ahal izango dituzte. Informazioa modu analogikoan komunikatuko da seinale-, panel- eta kartel-sistema baten bitartez. Horiek modu sistematizatuan banatuta egongo dira oinezkoen erabilera eremuan, eta irakurterrazak izateko instalatu eta diseinatuko dira. (CTE DB-SUA-A Eranskina, «Mekanismo irisgarriak»)

5


APARKALEKUAK

- > Mugikortasun mugatua duten pertsonentzat gutxieneko plaza kopuru bat ziurtatu behar da (40 plazatik bat edo zatikia). Plaza horiek honako ezaugarriak izango dituzte:




planta

- > Zoruko seinalea eta seinale bertikala izango dute, eta gainerako kotxeek aparkatzeko debekua ere jarriko da.




alzado

- > Ekitaldia gauzatuko den lekutik ahalik eta hurbilen egongo dira.
- > Bertatik espaloira igotzeko arrapala egokiak izango ditu. Erreserba hori beste kotxeek hartu dezaten ekidingo da.



planta

1 Irudia beste kota batean erreserbatutako aparkalekua



- > Aparkaleku-txartelen makina automatikoak baldin badaude, horiek ere irisgarriak izango dira.
- > Eremuan sartu eta ateratzeko langa badago, eta horrek interfonoa baldin badu, bideo-telefonoa eta testu-pantaila izan beharko ditu teklatu eta guzti, behar den kasuetan langileekiko komunikazioa errazteko.
- > Eremu guztia hesituta baldin badago, mugikortasuna mugatuta duten pertsonen dagokien aparkaleku-eremu bat prestatu beharko da. Ekitaldiaren eremura iristea ezinezkoa bada, nolabaiteko garraio irisgarria ezarriko da, mugikortasuna mugatuta duten pertsonak ekitaldiaren eremuraino eramateko.

6**KOMUNIKAZIOAREN ORDEZKO SISTEMAK EDOTA SISTEMA OSAGARRIAK**

Komunikazio-forma ahozkoa bada gehien bat, ahozko komunikazioaren ordezkoko bat eskaini behar da: hala nola, zeinu-hizkuntzako interpreteak, azpidatziak pantailan, soinua igotzeko aukera, etab.

Zeinu-hizkuntzako interprete-zerbitzuari dagokionez, honakoak hartuko dira kontuan:

- > Interpretazio-zerbitzuak aurretiaz kontratatzea.
- > Eremua argizatzea.
- > Beharrezko interprete kopurua.
- > Interpreteentzako mikrofono gehigarriak.
- > Interpreteei programaren kopia eta liburuxkak (halakorik baldin badago) aurretiaz ematea.

Halaber, aurkezpenetan honako neurriak hartuko dira:

- > Bideoek azpidatziak dituztela ziurtatzea.
- > Liburuxkak hainbat formatutan.
- > Inprimatutako materialak ordezkoko formatuetan egotea:
 - Braille, testua soilik.
 - PDF

Ikuskizun bisualetan, ordezkoko komunikazio-sistema bat gehitzeko aukera eskaini behar da (audio-deskribapena, ukimenezko bisita, bisita gidatuak, etab.).

Mezuak komunikatzeko megafonia erabiltzen denean, hura ordezkatzeko duen idatzizko komunikazio-sistema bat erabili behar da.

Ekitaldi berezietan, beti gehituko da ordezkoko sistema bat, eta kasu bakoitzari hobeakien egokitzen zaiona hautatuko da.

7**INPRIMATUTAKO INFORMAZIOA**

- > Hautatutako paper motak ez-irristakorra izan behar du, matea eta plastifikatu gabea; gainera, boli-kolorea edo pastel-tonuak erabiltzea gomendatzen da, bai eta aurrealdean idatzita dagoena ez ikusteko moduko gramajea ere.

- > Paperaren eta letren koloreek elkar kontrastatuko dute.
- > Testuaren atzealdea apaindurarik gabea izan behar da.
- > Konposizioa sinple eta uniforme izango da dokumentu osoan. Testua ezkerretik errotatuko da. Ezkerreko eta eskuineko marjinetan behar adina espazio egongo da. Egokia da letra-tipoaren % 25-30eko tamaina edukitzea. Paragrafo laburrak erabiltzea hobesten da, bai eta zerrendak eta binetak erabiltzea ere.
- > Letra tamaina handia gomendatzen da, 14 puntukoa, edo gutxienez, 12 puntukoa. Letra-tipo irakurterazak aukeratu dira (Verdana, Arial, Helvetica edo Universal) eta zenbaki argiak izango dituzte. Ez dira esaldi osoak idatziko letra larriz. Goiburuak letra lodiz bereiziko dira, kolore ezberdina izango dute, tamaina handiagoa, etab.
- > Informazio grafikorik badago, edukiaren deskribapenaz lagunduta joango da.
- > Teknizismo eta akronimoen erabilera ekidingo da.

Halaber, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen honakoak beharko dituzte:

- > Informazioa Braillez.
- > Letra tamaina handiko dokumentuak.
- > Autodeskribapena duten ikus-entzunezkoak.
- > Informazio elektronikoa irisgarria (PDF, grafikoen deskribapenak, etab.).

Entzumen-desgaitasuna duten pertsonen dagokienez, honako neurriak hartu beharko dira:

- > Testu erraza, grafikoak eta ikonoak erabiltzea.
- > Ikus-entzunezkoak azpidatzi eta zeinu-hizkuntzaz lagunduta.
- > Dokumentu irakurterazak, hizkera argi eta samurraz idatzita.
- > Testua ulertzen lagunduko duten ilustrazio grafikak.

Desgaitasun fisikoa duten pertsonen kasuan, honako neurriak hartu beharko dira:

- > Irekitzeko beharrik ez duten edo irekitzen errazak diren dokumentuak. Liburuxkak uztaiak izango ditu, irekitzen erraza izateko eta atriletan jartzeko aukera eskaintzeko.
- > Eramaten errazak izango dira, edo eramateko poltsak eskainiko dira.

Desgaitasun kognitiboa duten pertsonen kasuan, honako neurriak hartuko dira:

- > Dokumentu irakurterrazak, hizkera argi eta samurraz idatzita.
- > Dokumentu grafiko eta ikonikoak.
- > Ikus-entzunezko dokumentuak.

Formatuari dagokionez, hona hemen kontuan hartu beharreko hainbat kontu:

- > Letra-tipo zuzenak dira egokienak: Verdana, Arial, Helvetica edo Universal.
- > Gutxienez 12 puntuko letra tamaina gomendatzen da.
- > Hitzen arteko tartea letra-tipoari dagokiona izango da.
- > Letra larriz idatzitako esaldiek irakurketa zailtzen dute.
- > Irakurketa jarraitua egiteko ez da letra etzana gomendatzen.
- > Goiburuak argi eta garbi bereiziko dira (letra lodia, tamaina handiagoa, etab.).
- > Letra lodiz idatzitako testuek irakurketa zailtzen dute.

8

IKUS-ENTZUNEZKO INFORMAZIOA

Desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarri izateko, autodeskribapen- eta azpidatzi-sistema izango dute txertatuta, bai eta zeinu-hizkuntza ere (azken hori irudiarekin batera sar daiteke, entzunezko informazioarekin batera).

- > Autodeskribapena AENOR UNE 153020 Arauaren arabera.
- > Azpidatziak AENOR UNE 153010 Arauaren arabera.

9

INFORMAZIO DIGITALA

WEB bidez eskaintzen diren zerbitzuetako asko ez dira irisgarriak, eta desgaitasuna duten pertsonak zailtasunak dituzte eduki digitalak kontsultatu edo horiekin elkarreraginean aritzeko.

Eduki irisgarria sortzeko jarraibideak WAI (Web Accesibility Initiative) web-orrialdean daude, bai eta WAIren baldintzetan oinarritutako AENOR UNE 139803 arauan ere. Era berean, UNE 139802 araua hartu behar da kontuan: «desgaitasuna duten pertsonentzako aplikazio informatikoak. Ordenagailuaren irisgarritasun-baldintzak. Softwarea».

Sarrerak WEB-orrialdeen bitartez erosi behar badira, ziurtatu desgaitasuna duten pertsonen gordetako lekuak Internet bidez erreserbatu eta eros daitezkeela.

10**MOTA GUZTIETAKO ERAKUSMAHAI ETA INFORMAZIO PUNTUAK**

- > Lehenik eta behin, halakoek sarrera- edo eremu itxietarako sarbide-puntuetatik hurbil, atarietan, eta abarretan egon behar dute.
- > Ez dute pasabidea oztopatu behar, eta ez dute izkinarik edo ertzik edukiko.
- > Ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzako nolabait seinaleztatuko dira (lurreko seinaleak, mugikor bidez topatu daitezkeen seinale akustikoak).
- > Seinaleek eta beren atzealdeek kontrastatu egin behar dute. Zuzeneko argi nahikoa izango dute.
- > Ez dira kristalezko erakusmahaiak gomendatzen.
- > 1,10 m-ko altuera maximoa izango du, eta 1,20 m-ko luzerako maila bat izango du beheago (80 cm-ko altueran), 0,70 m-tik behera tarte librea egonik. Gutxieneko sakonera 0,50 m-koa izango da.
- > Informazio-puntu hauetako langileek oinarritzko ezagutzak izan behar dituzte, desgaitasuna duten pertsonak tratatu eta horietaz arduratzen jakiteko.
- > Desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko boluntarioei eta zeinu-hizkuntzako interpreteei buruzko informazioa emango da.
- > Komenigarria da langileek pertsona gorrekin, hipoakusia edo komunikazio-arazoak dituzten pertsonekin komunikatzeko oinarritzko estrategiak ezagutzea.
- > Informazio-puntu horietan ukimenezko planoren bat egon behar da, eraikinaren edo zonaldearen oinarritzko interes-puntuak jasotzen dituen.
- > Komenigarria da begizta magnetikoa ezartzea, hipoakusia duten pertsonen informazioa entzun dezaten.
- > Informazio idatzia makrokaraktereetan nahiz Braille sisteman emateko baliabideak egon behar dira, eta informazioaren bertsio irakurterraza edukitzea komeni da.
- > Eskaintzen den informazio orok bete behar ditu gutxieneko irisgarritasun-baldintzak.
- > Telefonorik baldin badago, hori irisgarria izango da komunikazio-arazoak dituzten pertsonentzat (soinu anplifikadorea, faxa, bideo-deia, etab.; aparatuaren gainerako atalekin kontrastatzen duen teklatu handia ere izango du).

11

INFORMAZIO-KARTELAK EDO PANELAK

- > Erabilitako hizkera argia eta ulerterraza izango da, eta ibilbide osoan zehar egongo da.
- > Ertzik gabekoa eta erpin kamutsekoa izango da.
- > Informazioa Braillez eta goi-erliebez eskainiko dira, eta ez da kristalekin ez beste elementuekin babestuko, pertsonak panel horien bidez informazioa jaso dezaten.
- > Ez da inolako trabarik egongo inguruan, eta pertsonak 5 cm-raino hurbildu ahalko dira.
- > Informazio asko baldin badago, oinarrizko informazioa eman eta pertsona hori informazio-punturik hurbilenara gidatzea gomendatzen da, argibide gehiago jaso ditzan.
- > Panel zintzilikariak erabiltzea ekidingo da, eta horiek jarritz gero, 2,20 m-ko altueratik gora ezarriko dira.
- > Edozein kartel proiektatutako oinarrien gainean ezarri behar da, eta lurrera iristen den edozein apaingarri baliatuko da horretarako, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonak horren aurka kolperik har ez dezaten.
- > Errotuluek ezarrita dauden paramentuarekin kontrastatu behar dute; halaber, karaktereek edo piktogramek ere atzealdearekin kontrastatuko dute. Letraren eta atzealdearen arteko kontrastea gutxienez % 70ekoa izatea gomendatzen da.
- > Seinaleek kolore korporatibo finkoak baldin badituzte, baliteke seinalearen inguruan ertz kontrastatua erabili behar izatea; kasu horretan, ertzaren zabaleraren seinalearen zabaleraren % 10ekoa izango da.
- > Argiztapena garrantzitsua da:
 - Panelak eta errotuluak ez dira jarriko argiztapenak irakurketa galarazten duen tokietan.
 - Argiztapena egunez eta gauez egon behar da.
 - Ez du itzalik ez itsualdirik eragin behar.
- > Letra-tipoak irakurterrazak izango dira, Verdana, Arial, Helvetica, Universal kasu, eta zenbaki argiak izango dituzte.

LETRA-TIPOAREN TAMAINA		
DISTANTZIA	GUTXIENEKOA	GOMENDAGARRIA
5 m	7,0 cm	14 cm
4 m	5,6 cm	11 cm
3 m	4,2 cm	8,4 cm
2 m	2,8 cm	5,6 cm
1 m	1,4 cm	2,8 cm
50 cm	0,7 cm	1,4 cm

- > Konposizioa sinplea eta uniformeak izan behar da.
- > Testua ezkerretik errotatuko da eta bloke-paragrafoak ez dira zentratuko.

12

BOLUNTARIOAK

Espazioaren eta jardueraren arabera, laguntza-zerbitzu bat prestatu beharko da:

- > Ikusmen-arazoak dituzten pertsonak: Hainbat lekutara joateko (eserlekua, komuna, taberna, garraioa, etab.) edo espazio handietan orientatzeko (erliebe-planoak prestatu daitezke orientazioa laguntzeko) laguntza behar dute.
- > Mugikortasun mugatua duten pertsonak: Jardueran parte hartu ahal izateko nolabaiteko laguntza behar dute.
- > Entzumen-desgaitasuna duten pertsonak: gehien bat jardueran gertatzen ari denaren inguruan informazioa emateko laguntza behar dute.

Orokorrean, litekeena da desgaitasuna duen pertsona jada lagunduta etortzea; beraz, (gutxienez) espazio bat bermatu behar da pertsona horiek beren kidearen ondoan egon ahal izateko. Kasu batzuetan hainbat kide izan litezke (familiak hurrekin).

Desgaitasuna duten pertsonekin tratua edukitzean kontuan hartu beharrekoak:

- > Desgaitasuna duten pertsonen arreta-zerbitzuetan naturaltasuna da garrantzitsua.
- > Bastoia, makila edo eskorga erabiltzen duten mugikortasuna mugatuta duten pertsonen kasuan, laguntza eskaini edo besterik gabe lagundu ditzakegu: haien erritmora ibili, eta ibili beharreko distantzia handiegia denean gurpil-aulki bat eskaini daiteke. Pertsona hori gurpil-aulkian baldin badabil, haren aurrean ipini eta aulkia bultzatzeko laguntzarik behar duen galdetuko diogu. Baietz badio, ez dugu azkarregi eraman behar, ez eta zakarki biratu ere.

- > Ikusmen-desgaitasuna duten pertsonekin ari bagara, lehenik eta behin geure burua identifikatuko dugu, tonu arrunta erabiliz modu argian mintzatuko gara, «ikusi» edo «begiratu» bezalako hitzak normaltasunez erabiliko ditugu, eta «han» edo «hori» bezalako termino lausoak ekidingo ditugu, besoa eskaini aurretik laguntzarik behar duten galdetuko diegu, ibilbidean dauden traba posibleez ohartarazi...
- > Entzumen-arazoa edo hipoakusia duten pertsonak laguntzeko honakoa gomendatzen da: ez oihukatzea, modu egokian eta abiadura ertainean ahoskatzea, begietara begiratzea, keinuez laguntzea, bizkarrik ez ematea, burua ez biratzea, idazketaren laguntza baliatzea...
- > Pertsona batek komunikazio-arazoak baldin baditu, erabiltzen duen komunikazio-metodoa zein den ezagutzen saiatuko gara, batez ere «bai» eta «ez» nola esaten duen jakiteko. Erantzun ditzakeen galderak egin eta haren erantzuna ulertu ote dugun adieraziko diogu. Pertsona horrek mezua amaitu arte itzarongo dugu eta ez dugu haren komunikatzeko laguntza tekniko manipulatu baimenik gabe.
- > Desgaitasun intelektuala duten pertsonen kasuan, haien adinaren arabera tratatuko ditugu, ez baitira «betiereko haurrak»; pentsatu eta erantzuteko denbora emango diegu; esanahi bikoitzik gabeko mezu labur, zehatz eta zuzenak erabiliko ditugu, eta, ulertu ez bagaituzte, adierazpide errazagoak bilatuko ditugu; haien isiltasunak errespetatuko ditugu; jarrera paternalistak ekidingo ditugu, eta haien erabakiak hartzen utziko diegu.
- > Arau orokor gisa, desgaitasuna duen pertsonari zuzenduko gatzazkio beti, ez haren laguntzaileari, eta zein arreta mota nahi duen galdetuko diogu. Modu natural eta arruntean jokatzeko da gakoa.
- > Jarduera guztiek edukiko dute zeinu-hizkuntzako interpretea, bai eta pertsona gor-itsuentzako gida-interpretea ere. Interpreteen zenbatekoa jardueraren iraupenari dagokiona izango da. Mikrofono gehigarriak eskuragarri eduki behar dira.
- > Ekitaldia hasi aurretik, interpreteei programaren eta jardueren kopiak eman behar zaizkie.

13

TOKIA ERRESERBATZEA

Edukiera handiko ekitaldi publikoetan (kontzertu, festa, etab.), hala behar duten edo hala eskatzen duten pertsonak egoteko espazio bat erreserbatu behar da:

- > Mugikortasuna mugatuta duten pertsonak: jarduera ondo ikusteko moduko lekua.

- > Entzumen-arazoak dituzten pertsonak: lehenengo ilaran erreserbatuko da espazioa, baliatuko den ordezeko komunikazio-sistemarekin ekitaldia ondo jarraitzeko eta jarduera ondo ikusi ahal izateko.
- > Ikusmen-arazoak dituzten pertsonak: lehenengo ilaran, eskariaren arabera eta ikuskizuna deskribapenekin osatuta dagoenean. Ahal bada, eremu irisgarri edo erreserbatuetara iristeko bidean sokak jar daitezke, gida lanak egiteko.

Mugikortasuna mugatuta duten pertsonentzako erreserbatutako espazioak edukitzea beharrezkoa da hainbat ikuskizunetan, izan eremu itxietan nahiz kanpoaldean, pertsona horiek ikusmen-angelu egokia izan dezaten. Erreserbak antzokiaren edukieraren arabera izango dira, eta horregatik, erreserba horien ezaugarriak ere aldatu egingo dira ikuskizuna gauzatuko den lekuaren arabera. Kontuan hartu behar da mugikortasuna mugatuta duten pertsonak laguntzailerentzako batekin etor daitezkeela, beraz horientzat ere espazioa gorde beharko da.

→ *Ikusi honako planoak «A01 (1) erreserbatutako eremua» (I Eranskina) eta «A02 (1) erreserbatutako eremua» (II Eranskina)*



14

GARRAIOA

Desgaitasuna duten pertsonentzako aparkaleku-txartela duten mugikortasuna mugatuta duten pertsonen aparkatzeko lekuak gordeko zaizkie.

Esparrura ahalik eta gehien hurbiltzea erraztu beharko da, nahiz eta sarbidea gainerakoentzat debekatuta egon.

Ekitaldi publikotik hurbil dauden garraiobide publikoak jakinaren gainean jarri beharko dira, eta horiek dagozkion komunikabideetan zehaztuko dira.

15

MUSIKA-EKITALDIAK GAUZATZEN DITUZTEN LOKALEK BETE BEHARREKO BALDINTZA OROKORRAK

- > Aparkaleku irisgarriak.
- > Arrapalak edo desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasuna ziurtatzen duten igogailuak.
- > Erraz irekitzen diren ateak.
- > Egokitutako konferentzia-gela, gurpil-aulkian doazen erabiltzaileek programa ikus dezaketela ziurtatzeko.
- > Desgaitasuna duten hizlariantzako oholtza irisgarria.
- > Kokapena adierazten duten seinaleak Braillez edota letra nabarmenez idatzita egongo dira.
- > Modu agian seinaleztatutako komun irisgarriak.
- > Entzumena laguntzeko sistema: Begizta magnetikoa.
- > Kafetegi, jatetxe eta erakusketa irisgarriak.
- > Bertaratzeko garraio irisgarria.

16

MUSEOAK ETA GALERIAK

- > Eraikin bakoitzean irisgarritasuna eragozten duten oztopo zehatzak kentzeaz gain, beharrezkoa da **museoetako edo arte-galerietako eremuak bereiztea**, lurreko testura- edo kolore-konbinazioak baliatuta.
- > Eremu ezberdinen plano eskematikoak eduki behar dira, eta espazioa eta haren banaketa ezagutu ahal izateko, honako formatuak erabiliko dira: goi-erliebea, Braille-sistema eta kontraste bisuala.
- > Harrera-eremuetan, ikus-entzunezko aretoetan edo ekitaldi-aretoetan **begizta magnetikoak** instalatu behar dira, hipoakusia edo kokleako inplantea duten pertsonen entzun ahal izateko.
- > **Bildumak irisgarri** izan daitezen ahalbidetu behar da, ukimenaren bitartez bada ere: jatorrizko lanen bitartez, edo edukia identifikatzea posible egiten duten maketak prestatuta.
- > Ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzat egokitutako **audio-gidak eduki** behar dira. Audio-gida horiek barruko ibilbidean zehar mugitzeko informazioa grabatuta edukiko dute, bai eta hautatutako piezen **audio-deskribapena** ere.



- > **Zeinu-gidetan**, lanen inguruko informazioa **zeinu-hizkuntzan** dauden edo **azpidatziak** dituzten bideoetan ematen da.
- > **Gidarik** baldin badago, **zeinu-hizkuntzaren oinarritzko ezagutza** izango dute, edo bestela, behar den kasuetarako zeinu-hizkuntzako interprete bat egongo da.

17

ZINEMAK ETA ANTZOKIAK

- > Web edo kutxazainen bidezko **aurretiazko salmentan**, **erreserbatutako plazak** erosi edo gorde ahaliko dira.
- > Langileek oinarritzko **ezagutzak** izango behar dituzte **desgaitasuna duten pertsonen arretaren** gainean.
- > **Inprimatutako karteak** testu idatzien **irisgarritasuna** bermatzeko gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte: letra tamaina, kontrastea, zuriuneak, lerrokatzea...
- > **Aretoko ateak erraz aurkitzeko modukoak** izan behar dira, eta kontraste kromatiko eta argiztapen egokia izan behar dute.
- > Ate bakoitzaren eskuinaldean **makrokaraktareak**, **goi-erliebea** eta **Braille-sistema baliatuz idatzitako informazio-kartela** egongo da, eta bertan, irisgarri diren eserlekuei dagokien zenbaki-bitartea adieraziko da.
- > **Aretoko ibilbide** posibleek 1,20 m-ko zabalera izango dute, gutxienez.
- > **Eserleku-errenkadak lurreko argi baten bidez seinaleztatuta** egongo dira, eta alboko aldean goi-erliebezko makrokaraktareekin eta Braillez adierazita egongo dira. Modu berean adieraziko da eserlekuaren zenbakia haren bizkarraldean.
- > Argia itzaltzen denean, **aretozainak** egongo dira, eta lurreko edo paretako **argiztapen-sistema** martxan jarriko da. Paretako argiak 25 cm-ko altueran egongo dira gehienez.

Aretoan desgaitasuna duten pertsonak kokatzeari dagokionez, honakoa gomendatzen da:

- Zinemetan, entzumen-desgaitasuna edo hipoakusia duten pertsonentzako 9. edo 10. ilararen **erdialdean hainbat plaza gordetzea**; izan ere, azpidatziak errazago irakurtzen dira eta filmaren gaineko ikusmen-angelu hobeak da bertan. Antzokietan, lehenengo ilarak ezin hobeak dira eszenaren eta zeinu-hizkuntzako interpretearen gaineko ikusmen-angelua hobetzeko, azken horrek taula gainean egingo baitu lan. Era berean, pertsona itsu-gorrek ere lehentasuna izango dute eserleku horietan.
 - **Gurpil-aulkia darabiltenentzat gordetako espazioak eserleku-blokean** eta lurzoru lauan **integratu** behar dira, alboko eserlekua laguntzaile posibleei gorde ahal izateko. Jarleku horiek pantailatik hurbilen dauden eremuetan soilik gordetzea ekidingo da, ezerosoa eta filma ikusteko desatsegin samarra baita. Espazio horiek lurrean **seinaleztatuta** egongo dira.
 - **Eserlekuak** eskaintzen duten espazioari esker, **itsu-txakurra** darabilten pertsonak eserlekuaren azpian beren oinetan eduki ahalko dute txakurra, bai eta korridorean ere, baldin eta ez bada oztopo eta korridorearen 0,90 m-ko gutxieneko zabalera mantentzen bada.
- > Zinema-aretoak audio-deskribapena dakarten filmak eskaini behar ditu, ikusmen-desgaitasuna edo -urritasuna duten pertsonentzako.
- > Pertsona gorrentzako **azpidatziak dituzten filmak** ere eskaini behar dira.
- > Audifonoa edo kokleako inplantea duten pertsonak jasotzen duten entzumen-seinalea hobetzeko, aretoak **begizta magnetikoa** izango du. Sistema horrek haririk gabeko sare baten bitartez eramaten ditu uhin elektromagnetikoak transmisore batetik hargailu batera, indukziozko bobina daukan audifono batera, normalean.
- > **Antzokietan**, egoera ezberdina da. Antzezlaneko elkarrizketak itzultzeko, **zeinu-hizkuntzako interpreteak** eduki behar dira, bai eta pantaila handi batean elkarrizketen testuak proiektatuko dituen **estenotipia-sistema** bat ere.
- > Aretoak **hosgabetutako kabina** bat izango du, lokutore batek **antzezlanaren audio-deskribapena zuzenean** emateko. Ikusmen-desgaitasuna edo urritasuna duen pertsonak entzungailu bat erabiliko du bere belarrietako batean, eta bestea libre utziko du antzezlaneko soinua zuzenean entzuteko.

18**AUDITORIUMAK ETA KONFERENTZIA GELAK**

- > **Seinaleztapena.** Elementu hauetarako sarbidea behar bezala seinaleztatu behar da. Seinaleak sarbideetatik hurbil egongo dira, eta erraz aurkitzeko moduan egon behar dira, eskuinaldean. Denek ulertzeko moduko testu erraza. Seinaleen aurrean ez da oztoporik egongo.
 - > **Ateak erraz aurkitzeko moduan** egongo dira, behar bezala kontrastatuta eta argiztatuta. Areto handietan, ateetako bakoitzean adieraziko da zein eserleku-zenbakiri sarbide ematen dion ate horrek.
 - > **Pasilloek 1,20 m-ko zabalera** izango dute, gutxienez.
 - > **Eserleku-errenkaden zenbakia** lurreko edo paretako (gehienez 25 cm-ko altueran) **argiztapen-sistemaren** bitartez adieraziko dira, eta eserleku-zenbakia haren bizkarraldean ezarriko da.
 - > Ikusmen-desgaitasuna edo itsu-txakurra duten pertsonentzat **korridoretik hurbil dauden espazioak gordetzea komeni** da.
 - > Halaber, mugikortasuna mugatuta duten pertsonentzat eserlekuak gorde behar dira. Eserleku horiek ez dira tolestuko, horietan esertzea errazagoa izan dakien bastoia erabiltzen duten pertsonen.
 - > **Oholtzara igotzeko aukera bermatu** behar da, bai eserlekuen eremutik, bai bestelako edozein sarbideetatik.
 - > Oholtzaren ertzean ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzako **zerrenda islatzaile** bat egongo da, oholta bertan bukatzen dela adierazteko. Testura zimurrekoa izan behar du, 5 cm-ko zabalera, eta ertzetik 10 cm-ra ezarrita egongo da.
 - > **Pertsona gorrei edo hipoakusikoei gordetako eserlekuak 9. edo 10. ilaretan** egongo dira, pantaila, zeinu-hizkuntzako interpretea, azpidatziak edo hizlaria (ezpain irakurketarako) errazago ikus ditzaten.
- Gurpil-aulkia darabiltenentzat gordetako espazioak eserleku-blokean integratu behar dira.** Lurzoruak horizontala izan behar du, inolako inklinaziorik gabea. Laguntzaile posiblearentzat gordetako eserlekuaren alboan ezarriko da. Lurrean seinaleztatuko dira.
- > **Mugikortasuna mugatuta duten pertsonentzako eserlekuak** gorago gordeko dira, eta beso-euskarriak izango dituzte, altxatzen laguntzeko.
 - > Aretoek **begizta magnetikoa** eduki behar dute.
 - > Behar den kasuetan **audio-deskribapena** egiteko, **hosgabetutako kabina** izango du aretoak, eta eserlekuek entzungailuentzako konexioa izango dute informazio hori jaso ahal izateko.
 - > **Zeinu-hizkuntzako interpreteak** eduki behar dira, bai eta pertsona itsu-gorrek gidatu eta horientzako interprete lanak egingo dituzten langileak ere.

- > **Estenotipia-sistema** ere edukiko da, zuzeneko azpidatzien bitartez edukia eskaintzeko.
- > **Tricaster teknologia** edukitzea komeni da, hainbat kamaretako informazioa bateratzeko: zeinu-hizkuntzako interpretea, azpidatziak eta hizlaria.

19

HAINBAT ERAKUSKETA

Lekuak **ezin du** oztopo arkitektonikorik ez komunikazio-**oztoporik** eduki:

- > Erakusketaren tokiraino iristen den garraioa dagoela bermatu behar da, bai eta hurbil dauden geltokiak irisgarriak direla ere, eta erakusketatik hurbil aparkalekuak egongo dira erreserbatuta.
- > Toki horretaraino iristeko **ibilbide irisgarriak** egon behar dira. (arrapalak, zoruak, eskailerak, seinaleztapena, etab.).

Komunikazioari dagokionez, alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- > Erakusketaren sarreran informazio-puntu bat egongo da, eta bertan, areto nagusiak eta puntu interesgarriak biltzen dituen **ukimenezko edo soinuzko plano bat** egongo da.
- > Kasuaren arabera, boluntarioen laguntza edo zeinu-hizkuntzako interpreteen zerbitzuak behar diren aztertuko da.
- > **Begizta magnetikoa** erabiltzea gomendatzen da.
- > **Ikus-entzunezko informaziorik** baldin badago, **azpidatziak, zeinu-hizkuntza eta audio-deskribapena** gehitu beharko zaizkio.
- > Idatzitako informazio guztia (liburuxkak, etab.) irisgarria izan beharko da ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzako, eta irakurterraza izango da.

Erakustokiei dagokienez, honako neurri hauek hartuko dira:

- > Bildumak erakusten dituzten standak edo erakustokiak kolore kontrastatuetan egon beharko dira, izkinarik eta ertzik gabe. Ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzat ezin dira oztopo izan.
- > Pasabide librearen zabalera **1,80 m**-koa izango da, gutxienez.

- > Horizontala bada, **0,80/0,85 m-ko altueran** egongo da, barruan dauden objektuak ikusi ahal izateko.

→ *Ikusi A03 planoaren beira-arasa bertikala (III. Eranskina) eta planoaren A02 beira-arasa horizontala (IV. Eranskina)*

- > Beharrezkoa da **bildumak ukitu ahal izatea** edo objektuak ukimenaren bidez identifikatzea ahalbidetzen duten **maketak** egotea.
- > **Langileek desgaitasuna duten pertsonen** inguruko ezagutza dute eta horien arretarako **prestatuta** daude.

20

HONDARTZAK

Ekitaldi publikoak hondartzetan egiten direnean, horiek irisgarritasun-neurri batzuk beteko dituzte:

- > **Seinaleztapena** garrantzitsua da:
 - Sarrera irisgarrietarantz zuzentzeko.
 - Informazio-guneetarantz zuzentzeko.
 - Erreserbatutako eremuetarantz zuzentzeko.
- > Irisgarritasun-baldintzak betetzeko, honakoak seinaleztatuko dira, besteak beste: **jarraitu beharreko norabidea, distantzia, eskuragarri dauden zerbitzu eta instalazioak**, etab.
- > **Informazio-puntua** behar bezala kontrastatuta egongo da. Urrutiko agintearen bitartez aktibatzen diren informazio-puntuak instalatu daitezke, ikusmen-degaitasuna duten pertsonen jarraitzeko seinale akustikoekin.
 - **Informazioa erliebean** dakarren planoak honakoak jasoko ditu: informaziorik garrantzitsuena, erreserbatutako espazioen kokapena, arrapalak, atsedeen-guneak, duxak, etab. Horrekin batera, informazioa Braillean eta goi-erliebean egongo da.
- > Sarbidetik elementu ezberdinetara doan **ibilbide egokitua** egon behar da, horietara iristeko beharrezkoak diren adarkatze guztiekin. Duxak, komunak, kioskoak, erreserbatutako eremua, etab.
- > Ibilbideak kontrastea eduki behar du, zoru egonkorra eta ez labaingarria, eta oinutsik ibiltzeko moduko eroankortasun termikoaren koefizientea. Pasabide librearen zabalera 1,80 m-koa izango da, eta bi gupil-aulki pasatzeko moduko eremuak izango ditu.

21**AZOKA HANDIAK**

Erakustazoka handietan, erakustoki irisgarriak edukitzeko, PREDIF plataformak eskaintzen digun «Guía para hacer accesible un stand» txostenak dioena har dezakegu kontuan:

- > Standaren **zoruak** lokalaren zoruaren **arrasean** egon behar du. Ez bada posible, aurrealdean eta albo batean edo atzealdean arrapalak ezarriko dira. Arrapatatik hurbil ez da egongo hura oztopatzen duen altzairurik.
- > Erakustokiaren barruan pasabideak egongo dira, 1,80 m-ko zabalerakoak gutxienez. Pasabidearen altuera 2,20 m-koa izango da, eta hegal-elementuak neurri horretatik gora jarriko dira.
- > **Altzarien arteko tartea 1,20 m-koa** izango da.
- > **Aterik** baldin badago, **0,90 m-ko** pasabide librerako gutxieneko zabalera izango dute.
- > Edozein **mekanismo 0,80 eta 1,10 m**-ko altuera-tartean egongo da.
- > **Kristalezko edozein elementu** behar bezala **seinaleztatuta** egongo da, parametroarekin kontrastatzen duten kolore-zerrenden bitartez.
- > **Lurzoru, pareta eta beste hainbat elementuren arteko kontrasteak** erabiliko dira, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonak erraz bereiz ditzaten.
- > **Lurzorua ez labainkorra izan behar da**, lehorrean nahiz bustita. Irtengunerik gabe. Moketarik baldin badago, lurzoruari ondo itsatsita egongo dira. Ez da zati plegaturik edo askerik egongo.
- > Ibilbidea zeharkatzen duen **kablerik** baldin badago, horiek **behar bezala seinaleztatuta** egongo dira, eta **oztopatzea edo pertsonak erortzea ekiditeko arrapalak jarriko dira**.
- > **Ez da aldaketa zakarrik** egongo argiztapenean.
- > Lurreko **argiztapien-maila 300 lux-ekoa** izatea gomendatzen da.

> **Altzariak:** Altzari guztiak ertzik edo elementu zorrotz eta ziztatzailek gabekoak izango dira:

- Bi altueratako **erakusmahaia**. Alde baxuenak beharrezkoak diren baldintzak beteko ditu, ➡ **Publikoaren arretarako erakusmahaia A05 planoa (V. Eranskina)** atalean ikus daitekeen bezala.
- Erakusmahai horrek **indukzio magnetiko bidezko begizta** izango du, hipoakusia duten pertsonak laguntzeko. Halakorik dagoela adierazteko, piktograma bat ezarriko da.
- **Mahairik** baldin badago, gurpil-aulkia darabilten pertsonak bertara **hurbiltzeko modukoak** izan behar dute.
- Altuera ezberdinetako eserlekuak edo aulkiak egongo dira, pertsona eseri ahal izateko edo laguntza iskiatikoa izan dezaten. Bizkarralde eta beso-euskarriekin.
- Apalik baldin badago, 0,40 eta 1,40 m arteko altueran ezarriko dira. Horrela, gurpil-aulkia darabilten pertsonak erakustokian dauden produktu edo liburuxketara hurbildu ahalko dira.

> Azalpen-panelak:

- Horientzako **altuera** egokia **0,50 eta 1,70 m** artekoa izango da, hori baita errazen hautematen den eremua, dela oinezkoa, haurra edo gurpil-aulkia darabilen pertsona.
- Horren gainetik zerbait ikusgai baldin badago, **30 graduko inklinazioa** eduki beharko du, hura ikustea errazteko.
- Haiekiko distantziaren arabera, **karaktereen tamaina** honakoa izango da: 8 cm-koak 5 m-ko distantzian, 5 cm-koak 3 m-ko distantzian eta 3 cm-koak 2 m-ko distantzian.
- Ikusmen-desgaitasuna eta komunikazio-arazoak dituzten pertsonentzako **informazio egokia** egon behar da.
- **Ikus-entzunezko** elementuek **azpidatziak eta audio-deskribapena** izango dituzte, entzumen- nahiz ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzat.
- Bestelako beira-arakas ere erabil litezke, ➡ **beira-arasa horizontala A02 planoa eta beira-arasa**

22**KOMUN IRISGARRIA**

Sexu bakoitzeko komun bat egongo da, eta mugikortasuna mugatuta duten pertsonak modu autonomoan erabiltzeko modukoak izango dira. Komun irisgarrien proportzioa **10etik batekoa** izango da, edo horren zatikia. Honako ezaugarriak hartuko dira kontuan:

> Atea:

- Sartzeko ez du inolako koskarik edukiko.
- Haren kanpoaldean 1,80 m-ko diametroko bira egiteko adinako espazioa egongo da.
- Kanporantz irekiko da, inoiz ez barrurantz.
- Seinaleztapen egokia.
- Pasabideak 0,90 m-ko zabalera izango du. Zabukaria edo lerragarria.
- Behar bezala kontrastatuta egongo da paretarekin.



- 0,30 m-ko gutxieneko altueran zokalo babesgarri bat izango du.



- Erraz erabiltzeko moduko irekitze- eta ixte-mekanismoa, eta, larrialdiren bat suertatuz gero, kanpotik irekitzeko aukera.



> **Barruko aldea:**

- Lurzoru ez labainkorra, lehorrean nahiz bustita.
- Komunaren barruan 1,50 m-ko diametroko biribila egiteko adina leku egongo da.

> **Pixatokiak:**

- Pixatoki-bateriak instalatzean, gutxienez bat lurretik 45 cm-ra ezarriko da, idulki eta irtengunerik gabe.




> Konketak

Ez dute idulkirik edukiko, eta 0,70 m-tik beherako espazioa libre izango dute, gurpil-aulkia hurbildu ahal izateko.



Palanka luzeko txorrotak 0,95 m-ko altueran, aginte bakarreko txorrota edo txorrota automatikoen motakoak.



> Konketaren elementuak



> Komuna



> Komun-barrak



Barra zabukari bat
eta finko bat, edo bi
zabukari. 0,70 m-ko
altueran. Ardatz
zentraletik 0,35 m-ra.


Halako barrak oztopo dira
mugikortasuna mugatuta duten
pertsontzat.

> Beste elementu batzuk

Bestelako elementuak ezartzen badira (**haurren aldalekua**, adibidez), gurpil-
aulkia darabilten pertsonentzat irisgarriak izan behar dira, eta horregatik,
0,80 m-ko altueran egongo dira.



Kontuan hartu behar da, hainbat elementu direla-eta, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonak kolpeak edo erorketak jasan ditzaketela, **leihoak irekitzean** adibidez. Horregatik, komun barruko leihoak ez dira barrurantz irekiko, argazkian bezala.



Entxufeak, argi-etengailuak, etab. 0,90 eta 1,20 m arteko altueran egongo dira.

Era berean, komunek **alarma-sistema** eduki behar dute. Sistema hori lokarri motakoa izango da, eta lurretik 0,40 m-ra ezarriko da. Lokarri horiek lotuta egotea edo motzegiak izatea ekidingo da, horrela ez baitute eginkizuna betetzen, argazkietan ikus daitekeen bezala.



23**AIRE ZABALEKO IKUSKIZUNAK**

Emanaldia aire zabalean egitekoa baldin bada, eta kale batzuk itxi edo horretarako aldamioak edo bestelako elementuak ezarriz gero, honako neurriak hartuko dira:


- > **Aldamioak, etab.:** Lana babesteko ezarritako aldamioen edo hesien ezaugarriek, baldintzek eta neurriek ez badute ohiko oinezko ibilbide irisgarria mantentzea ahalbidetzen, horren **ordezko ibilbide irisgarri** bat ezarriko da oinezkoentzako. Behar bezala seinaleztatuko da ibilbide hori, ez da inolako irtengunerik egongo eta ohiko ibilbidearekin gurutzatuko dela bermatuko da.
- > Ordezko ibilbidean egon litezkeen **maila aldaketak plano inklinatu edo arrapala baten** bitartez konponduko dira. Elementu horiek **% 10eko malda edukiko dute gehienez**, eta horrela, espaloietako arrapalei buruz ezarritako guztia edo ia guztia beteko da. Aldamioek edo hesiek **gida edo elementu horizontal** bat edukiko dute behealdean ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen hauteman dezaten; halaber, eskubanda jarraitu bat ere ezarriko da 0,90 m-ko altueran.
- > **Eremura sartzeko eta hura ixteko** elementuek (pertsonek sartu-irtenerako ateez edo atetzarrek, materialek eta ibilgailuek, adibidez) **ez dute oinezko ibilbide irisgarria inbadituko**. Egiturretan irtenguneak egotea ekidingo da, eta halakorik baldin badago kolore kontrastatuko material seguruekin babestuko da, lurretik 2,20 m-ko altuerara.

Ikuskizunak bide publikoan egiten badira, ikuskizun-eremuko **oinezko ibilbideak** ukimenezko zoladura-adierazlez egindako **gida-zerrenda batekin seinaleztatuko dira**, honako jarraibidea kontuan hartuta:

- > Edozein motatako ikuskizuni eta emanaldiri dagokion seinaleztapena oinezko ibilbide irigarrian dagoenean, **0,40 m**-ko zabalera duen ukimenezko norabidezoladura adierazlea erabiliko da. Behin-behinekoa izango da, eta ordezkotako ibilbidean gida-lanak egingo ditu.



- > Oinezko **ibilbidea oztopatu** edo haren maila aldatzen duen elementurik baldin badago, **kableak adibidez**, oztopo horiek gainditzeko ezaugarri egokiak dituzten elementuak ezarriko dira (malda egokia duten arrapalak, %10eko malda gehienez).



Oztopoak gainditzeko elementu mota horrek malda egokia izan behar du. Izan ere, argazkian ezarrita dauden moduan gehiegizko malda dute, eta gurpil-aulkia darabilten pertsonentzat oztopo dira azken finean.




Ezin da Stop War jaialdian erabili zuten moduko ibilbiderik onartu: hartxintzarren erditik igaro eta kablez beterik, eta malda gehiegi zuen arrapalekin.

24

BESTE ELEMENTU BATZUK**> Interakzio jarraituko pantailak:**

- 1 eta 1,40 m arteko altueran ezarriko da, eta 15 graduko inklinazioa izango du.
- Teklatua 0,80 m-ko altueran egongo da. Plano horizontalean pixka bat inklinatuta egongo da.



→ *Ikusi A03 planoan interakzio jarraituko pantaila (VI. Eranskina)*


**> Interakzio ez-jarraituko pantailak:**

- 1 eta 1,40 m arteko altueran ezarriko da, eta 15 graduko inklinazioa izango du.
- Abiarazteko botoirik baldin badago, 0,90 eta 1,20 m arteko altueran ezarriko da. Ez da inolako oztoporik egongo botoi horretara iristeko.



> Erakusketarako beira-arasa bertikala:


Altzairuen diseinuak ezaugarri jakin batzuk eduki behar ditu: hala nola, objektuak, argazkiak edo beste hainbat elementu kokatzeko altuera jakina.





> Erakusketarako beira-arasa horizontala.





> **Seinaleztapen- eta argiztapen-elementuak** (561 AGINDUA, VIII. KAP., 31. Art.)1.

Oinezko eremuan dauden seinale eta argiztapen-elementu ugarien ondorioz oinezkoen zirkulazioan sor litezkeen arriskuak ekidite aldera, aipatutako elementu horiek ahalik eta euskarri-kopuru txikienean bilduko dira, eta espaloia-kanpo-bandaren alboan ezarri, zintarriaren eta galtzadaren arteko mugatik 0,40 m-ra. 2. Pasabide librearen zabaleragatik ezin bada seinale eta argiztapen-elementurik ezarri oinezko ibilbide irisgarrian, horiek fatxadetan atxiki ahaliko dira, eta beheko ertza 2,20 m-ko altueran egongo da gutxienez.

> **Informazio bisual eta akustikoaren ezaugarriak** (561 AGINDUA, XI. KAP., 41.3 Art.)

Argiztapen egokia (batez ere izkinetan eta bidegurutzeetan) eta norabide-gida bat lortze aldera, oinezkoek erabiltzeko espazioan argiak modu uniformean eta lerroan ezarriko dira. Interes-puntuak nabarmenduko dira: hala nola, informazio-kartelak, zenbakiak, panelak, planoak, etab. Horretarako, elementu horien gainean argi zuzenak erabiliko dira (islarik edo itsutasunik eragin gabe), erraz topatzeko modukoak izan daitezten.

Publikoa biltzen duten tokietako **larrialdi irteerek** honako zehaztapenak beteko dituzte: a) Seinale akustiko eta bisualak igortzeko sistema edukiko dute. Seinale hori oinezko ibilbide irisgarritik hautemateko modukoa izango da, eta toki horretako larrialdietako sistema orokorrari konektatuta egongo da.

25**EKITALDIAK ANTOLATZERA KOAN KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE ALDERDI BATZUK**

Desgaitasuna duten pertsonentzako eskuragarri dauden egokitzapenen inguruan informazioa emateko, honako neurriak hartuko dira:

> Entzumen-desgaitasuna duten pertsonentzako egokitzapenak

Jarduerak entzumen-komunikazioaren ordezkoko beste sistema bat eskaintzen duela adierazteko, edo halako sistema bat eskatu daitekeela adierazteko, honakoa egin daiteke:



Entzumen-desgaitasuna duten pertsonentzako ekintza irisgarria dela adieraztea, eskuragarri dauden baliabideak zerrendatuta: zeinu-hizkuntzako interpretea, pantailako transkripzioa, begizta magnetikoa, FM igorgailuak, etab.

Garrantzitsua da: **Aurretiaz abisatzea entzumen-komunikazioaren ordezkoko sistema bat behar duten pertsonen**

.....egun lehenago eska dezaketela, SMS bat bidalita honako zenbakira:.....; mezu elektronikoa bidalita helbide honetara;helbidea; edo fax bat bidalita honako zenbakira:.....; edo zenbakira deituta.

> Ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzako egokitzapenak

Antolakuntzak ikusmen-komunikazioaren ordezkoko sistema bat eskaintzen duela adierazteko, edo halako sistema bat eskatu daitekeela adierazteko, honako sinboloa erabili daitezke:



Ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzako ekintza irisgarria, audio-deskribapen zerbitzuarekin.

Garrantzitsua da aurretik abisatzea: **Ikusmen-komunikazioaren ordezkoko sistema bat behar duten pertsonakegun lehenago eska dezaketela, zenbakira deituta edo mezu elektronikoa bidalita helbide honetara:.....**

> Boluntarioak

Boluntarioen zerbitzuak eskainiz gero, horren berri eman beharko da komunikabideetan, modu honetan: **Desgaitasuna duten pertsonak laguntza-zerbitzua behar badute,egun lehenago eska dezakete, zenbakira deituta edo mezu elektronikoa idatzita helbide honetara:.....**

> Irisgarritasunaren eta aparkalekuen erreserben inguruko informazioa

Ekipamendua irisgarria dela edo aparkalekuak erreserbatu direla adierazteko:



Honela komunikatuko da: **Aparkaleku-txartela duten desgaitasuna duten pertsonentzako plazak gorde dira, honako lekuan:.....**

Ibilbide irisgarria dagoenean, hori ere jakinarazi beharko da.

> **Ondo komunikatzeko aholkuak**

• **Hizkera.**

- > Hizkera unibertsala baliatzea. Adibidez: «Mugikortasun mugatua duten pertsonentzako.....egokitzapena»
- > Egokitzapenaren ezaugarriei egin erreferentzia, egokitzapen hori dagokien pertsoneri egin orde. Adibidez:
 - Sarrera irisgarria
 - Sarbide egokitua
 - Komun egokitua

• **Koloreak eta kontrasteak.**

Kontuan hartu behar da, pertsona batzuek koloreak hautemateko arazoak dituztela. Horrela, atzealde grisean idatzitako letra zuriak irakurtzeko zail suerta litezke. Ondo kontrastatutako koloreak: Zuria/urdin iluna, beltza/horia, berde iluna/zuria, gorria/zuria.

IV BIBLIOGRAFIA

> <https://books.google.es/>

> <http://www.discapnet.es/>


> Predif: <http://www.predif.org/>

Guía normativa de accesibilidad en el País Vasco:

> <https://www.euskoregite.com>

V. ERANSKINAK

I. ERANSKINA



Dependiendo del aforo se reservaran los siguientes espacios para personas usuarias de sillas de ruedas y asientos para PMR.Segun decreto 68/2000 de la ley de accesibilidad .

AFOROS	RESERVA
Hasta 5000	2%
De 5001 a 20000	100 + 0,5% (aforo - 5000)
Más de 20000	175 + 0,25% (aforo - 20000)

PROPUESTA ZONA RESERVADA ESPACIOS DSS2016

PASEO ONDARRETA
5, BAJO;
20018
DONOSTIA-SAN
SEBASTIAN -
GIPUZKOA

Departamento:
Accesibilidad

Teléfono: 943 31 67 70

Plano de
Propuesta

Escala 1/50


Fecha MARZO de 2016

Plano nº

Autor: Joseba Inunciaga
Arquitecto Técnico
Nº colegiador: 02344

A.01.

II. ERANSKINA



Dependiendo del aforo se reservaran los siguientes espacios para personas usuarias de sillas de ruedas y asientos para PMR.Segun decreto 68/2000 de la ley de accesibilidad .

AFOROS	RESERVA
Hasta 5000	2%
De 5001 a 20000	100 + 0.5% (aforo - 5000)
Más de 20000	175 + 0.25% (aforo - 20000)

PROPUESTA ZONA RESERVADA ESPACIOS DSS2016



Departamento:
Accesibilidad

PASEO ONDARRETA
5, BAJO;
20018
DONOSTIA-SAN
SEBASTIAN -
GIPUZKOA

Teléfono: 943 31 67 70

Autor: Joseba Inuñiaga
Arquitecto Técnico
Nº colegiado: 02344




Plano de
Propuesta

Escala 1/50
Fecha MARZO de 2016

Plano nº

A.02.

III. ERANSKINA



Departamento:
Accesibilidad

PASEO ONDARRETA
5, BAJO;
20018
DONOSTIA
GIPUZKOA

Teléfono: 943 31 67 70

Autor: Joseba Inunziaga
Arquitecto Técnico
Nº Colegiado: 02344 COAATG


Plano de
VITRINA EXPOSITORA VERTICAL

Escala 1:40
Fecha Abril de 2016

Plano nº

A.01.

IV. ERANSKINA



Departamento:
Accesibilidad

PASEO ONDARRETA
5, BAJO;
20018
DONOSTIA
GIPUZKOA

Teléfono: 943 31 67 70

Autor: Joseba Inunziaga
Arquitecto Técnico
Nº Colegiado: 02344 COAATG


Plano de
VITRINA EXPOSITORA
HORIZONTAL

Escala 1:40
Fecha Abril de 2016

Plano nº

A.02.

V. ERANSKINA



Departamento:
Accesibilidad

PASEO ONDARRETA
5, BAJO;
20018
DONOSTIA
GIPUZKOA

Teléfono: 943 31 67 70

Autor: Joseba Inunziaga
Arquitecto Técnico
Nº Colegiado: 02344 COAATG




Plano de
MOSTRADOR ATENCIÓN AL
PÚBLICO

Escala 1:40
Fecha Enero de 2016

Plano nº

A.05.

VI. ERANSKINA



Departamento:
Accesibilidad

PASEO ONDARRETA
5, BAJO;
20018
DONOSTIA
GIPUZKOA

Teléfono: 943 31 67 70

Autor: Joseba Inunziaga
Arquitecto Técnico
Nº Colegiado: 02344 COAATG


Plano de
PANTALLA CON
INTERACCIÓN CONTINUA

Escala 1:40
Fecha Enero de 2016

Plano nº

A.03.

VII. ERANSKINA



Departamento:
Accesibilidad

PASEO ONDARRETA
5, BAJO;
20018
DONOSTIA
GIPUZKOA

Teléfono: 943 31 67 70

Autor: Joseba Inunziaga
Arquitecto Técnico
Nº Colegiado: 02344 COAATG

Plano de
PANTALLA SIN INTERACCIÓN
CONTINUA


Escala 1:40
Fecha Enero de 2016

Plano nº

A.04.


VIII. ERANSKINA

SITUACIONES HABITUALES DE PASOS PEATONALES
E: 1/100




Opción 1: Aceras estrechas que no permitan realizar el vado sin invadir 150cm de itinerario peatonal.
E: 1/20

SECCIÓN A-A



SECCIÓN B-B



PROPUESTA PASOS PEATONALES



Departamento:
Accesibilidad

PASEO ONDARRETA
5, BAJO;
20018
DONOSTIA - SAN
SEBASTIAN
GIPUZKOA

Teléfono: 943 31 67 70

Autor: Joseba Inundaga
Arquitecto Técnico
Nº colegiado: 02344

Plano de
Propuestas

Escala X
Fecha Abril de 2016


Plano nº

A.01.


IX. ERANSKINA

Opción 2: Aceras que permitan realizar el vado sin invadir 150cm de itinerario peatonal.
E: 1/20

SECCIÓN A-A




SECCIÓN B-B




INSTALACIÓN DE PAVIMENTO SEÑALIZADOR Y SUMIDERO
E: 1/50

Tipo Opción 1



Tipo Opción 2



PROPUESTA PASOS PEATONALES



Departamento:
Accesibilidad

PASEO ONDARRETA
5, BAJO;
20018
DONOSTIA - SAN
SEBASTIAN
GIPUZKOA

Teléfono: 943 31 67 70

Autor: Joseba Inundaga
Arquitecto Técnico
Nº Colegiado: 02344

Plano de
Propuestas


Escala X
Fecha Abril de 2016

Plano nº

A.02.

X. ERANSKINA

Opción 1: Aparcamiento y acera a la misma cota.



Departamento:
Accesibilidad

PASEO ONDARRETA
5, BAJO;
20018
DONOSTIA
GIPUZKOA

Teléfono: 943 31 67 70

Autor: Joseba Inunziaga
Arquitecto Técnico
Nº Colegiado: 02344 COAATG

Plano de
APARCAMIENTO RESERVADO
A COTA ACERA


Escala 1:100
Fecha Abril de 2016

Plano nº

A.01.

XI. ERANSKINA

Opción 2: Aparcamiento y acera a cotas diferentes, vado peatonal perpendicular al itinerario peatonal.



Departamento:
Accesibilidad

PASEO ONDARRETA
5, BAJO;
20018
DONOSTIA
GIPUZKOA

Teléfono: 943 31 67 70

Autor: Joseba Inunziaga
Arquitecto Técnico
Nº Colegiado: 02344 COAATG


Plano de
APARCAMIENTO RESERVADO
COTA DIFERENTE OPCIÓN 1

Escala 1:100
Fecha Abril de 2016

Plano nº

A.02.

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
DSS2016.EU



Gipuzkoako Gutxitasun
Fisikoa duten Pertsonen
Federazio Koordinatzailea